



Junior neskek Euskal Ligara saltoa. - Ostadar SKT-ko Errendimendu junior neskek Euskal Ligan jokatu dute denboraldia amaitu artean. Lehengo urtean Gipuzkoako txapeldunak izan zirenez, Errendimendu kategoriako A1 liga jokatu dute aurten. Saikapeneko lehen postuan izan dira fase erregular osoan. Hori dela eta, Euskal Ligan jokatzeko txartela eskuratu dute. Larunbatean lehen fasea amaitu zuten Easo 99 Balerdiri 59-45 irabaziz. Ostadarreko neskei urduritasuna nabari zitzairen lehen minututan eta hortaz baliatuz, Easo aurretik jarri zen. Baina partida aurrera joan ahala Ander Otaegiren neskek haien balio erakutsi zuten eta partidari buelta eman zioten garaipeneko puntuak eskuratu. Hau prestakuntza partida izan zen Ostadarreko neskekentzat. Izan ere, hurrengo asteburuan Final Four bat jokatu baitute Ordizia, Getxo bizkaitarra eta Arabako Arazki taldeen aurka. Irabazleak Euskal Ligako bost onenekin batera multzoa osatu eta Euskadiko txapelketa jokatu du. Gainontzeko hiruek, Euskal Ligako azken hiru taldeekin datorren urtean liga horretan mantentzeko txartela eskuratzegatik egingo dute borroka.

2 ERRAUSTEGIA Mendi-martxa otsailaren 28an

Gipuzkoan hondakinen erraustetaren kontra dauden hainbat talde larunbatean Zubietan bildu ziren 'Zubieta SOS. Buruaren eta Bihotzaren aldarria' manifestuaren hausnarketa egiteko. Honetaz gain, talde bakoitzak egingo dituen mobilizazioak koordinatu zituzten eta guztiek batera, otsailaren 28an erraustegia eraiki nahi duten eremura mendi-martxa egitea adostu zuten.



3 AISA Gazteburua eta Amarau Klubeko txikientzat ikastaroa

Lasarte-Oriako haur eta gazteek ekintza eta ikastaro bereziak gozatzeko aukera izango dute hurrengo asteetan. Gazte Klubeko lagunek larunbata arratsaldean Gazteburuetako saio berria dute, zinema. Amaraun Klubeko txikienek, berriz, 2 urtekoek hiruhileko honetan haien gorputza eta inguru ezagutzeko ikastaroa.

4 LITERATURA Sarriugarte eta Peruarena Irakurle Txokoan

Lasarte-Oriako irakurle txokoak gidari berria izango du ikasturtea amaitu bitartean, Danele Sarriugarte. Bere lehen saioan, Euskadi Literatura Saria izan zen 'Su zelaiak' liburua aztertuko dute. Sarriugarteren laguntzaz gain, Mikel Peruarena idazlearen azalpenak ere izango dituzte irakurleek, saioan bertan izango baita.

EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HELDUEN HEZKUNTZA

2015-2016 IKASTURTEA

**MATRIKULA EPEA ZABALIK
URTARRILAK 22 ARTE**

Beko kalea bidea 1, 3 (Anbulategi gainean) • Lasarte-Oria • www.epalasarate.es



Informazio
gehiago:
943 37 64 43
943 36 66 08

ERRAUSTEGIA

Elkarrekin inguru garbiaren alde

Otsailaren 28an, erraustegia eraikiko den lur eremura mendi-martxa antolatuko da

Larunbatean, hondakinen errausketaren aurka dauden Gipuzkoako hainbat talde bildu ziren Zubietan. Bertan elkarrekin lan egiteko eta errauste-plantaren aurkako hurrengo pausoak eztabaidatu ziren, hala nola, mendi-martxa egitea.

Zubietako erraustegia berriro eraikitzeke egitasmoa aurrera doa eta honekin batera, honen aurkako taldeak ere berpiztu edo sortu dira herrietan, hala nola, Lasarte-Oriako Aire Garbia edo Andoaingo Ipar Haizea taldea. Talde guzti hauen arteko harremana sustatu, indarrak batu eta ekintzak koordinatzeko larunbatean Zubietan batzar orokorra egin zen.

Zubieta inguruko eta Gipuzkoako beste hainbat herrialdeetako 80 bat pertsona izan ziren larunbateko ekimenean bildu zirenak.

Lehenik 'Zubieta SOS. Buruaren eta Bihotzaren aldarria' manifestuari buruz hausnarketa egin zuten. Hau nola hedatu ere landu zen.

Bestalde, talde bakoitzak bere proiektua azaldu eta ekintzen datak koordinatu ziren.

Ipar Haizea taldea

Asteburu honetan esaterako, Andoainen izango da ekintza bat sortu berri den Ipar Haizea taldearen eskutik.

Larunbatean bertan, aurkeztu zen taldea. Andoaingo bizilagun talde batek sortutako plataforma dugu eta aipatu



Zubietako batzarrean parte hartu zuten taldeetako kide batzuk taldeko argazkia atera zuten amaieran.

AIRE GARBIA

legez, urtarrilaren 20an, 'Arduraren aldeko giza katea' egiteko deialdia egin zuten Arrate plazan hasita.

Mendi-martxa


Baina herrietako ekintzez gain, guztiek batera otsailaren 28an erraustegia eraikiko den

eremura mendi-martxa berria egitea adostu zuten.

Aire Garbia taldeko kideek azaldu digutenez, hiru zutabe nagusi izango dira egitasmo honetan. Bata Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Andoain aldekoa, bestea kosta aldekoa Donostia eta Usurbilgo talde-

tako kideekin eta azkena, Lasarte-Oria eta Zubieta batu-

ko dituen. Oraindik gauza dezente zehazteko dago, baina hurrengo asteetan manifestuaren mamiaz eta mendi-martxaren berri izango dugula aurreratu dute.



Kadrillategi egitasmoa gazteek adi jarraitu zituzten Juantxo Arakamaren azalpenak.

Kadrillategi Bonberenean

Kadrillategi egitasmoa gazteek ostiralero biltzen dira euskaraz hain arteko harremana sendotzeko. Horretarako, hainbat ekintza eraman dituzte aurrera eta aste honetan ekintza berezia izan dute zaharrenek, Tolosako Bonberenean bisita.

Etxea ezagutu

Gainera, etxea erakusteko gidari berezia izan zuten gazte eta begiraleek, Glaukoma taldeko Juantxo Arakama abeslaria.

Juantxok etxearen filosofia eta bertan egiten diren azaldu eta Txoko guztien bisita egin


zuten Kadrillategiko lagunek.

Grabaketa eta errealizazio estudioa, antzokia, skate parka... etxeko txoko guztiak miatu zituzten.

Begiraleek jakitera eman digutenez, arratsalde pasa interesgarria izan zen gutzientzat.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika

publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

AISIA

Haur eta gazteentzat ekintzak

Gorputza eta ingurunea ezagutzeko saioak eta Gazteburua izango dira hurrengo asteetan

Amaraun eta Gazte Klube-ko lagunek ederki gozatze-ko aukera izango dute hurrengo asteetan dituzten ekintzekin. 9 eta 12 urte arteko gazteek Gazteburuen barruan, hurrengo larunbatean, film emanaldi saioa izango dute. Amaraun Klubeko 2 urteko txikiak, berriz, bere gorputza eta inguruneari buruz ikasten jarraitzeko aukera izango dute hiruhileko honetako saioekin.



Gabonetan Flash-moba grabatu zuten. Larunbatean, film emanaldia izango dute Gazte Klube-koek.

TXINTXARRI

Gazte Klubeko eta lagunek Gazteburuetako ekintza berria dute hurrengo larunbatean, 16:00etatik aurrera, zinema emanaldia.

Krispetak eta litxarreriak prestatu ahal dituzte beraz, 9 eta 12 urteko herriko gazteek larunbaterako.

Emanaldian euskal film batetaz gozatu ahalgo dutela aurreratu dute Gazte Klubeko arduradunek. Baina ez dute filmaren izen zehaztu nahi izan, "ez usteko bat izatea nahi dugu".

Hala ere, saioak bi ordu iraungo dituela iragarri dute. Beraz, arratsaldeko 18:00etan amaituko da emanaldia.

Beraz, zineaz euskaraz gozatu nahi duten gazteek, Amaraun Ludotekan, urtarrilaren 23an aukera dute.

Gorputza eta ingurua

Bestalde, Amaraun Klubeko kide txikiak, 2 urteko laguntxoek, hiruhileko honetan haien gorputza eta ingurunea ezagutzeko hiru saio berri izango dituzte.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, hiru astearteetan egingo dira ekintzak.

Lehen saioa urtarrilaren 26an izango da. "Honetan material birziklatuekin jostailu eta jolasak egingo dira", azaldu dute.

Otsailaren 23an, berriz, koloreak landu eta bodypaint saio txiki bat izango da. Azke-

nik, martxoaren 8an, argia eta itzalekin jolastuko dira.

Klubeko lagunek gogorazten dute haurrek heldu batek lagunduta parte hartu behar dutela saio hauetan.

Saio guztiak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan egingo dira, arratsaldeko 17:30 eta 18:15 bitartean.

Izena ematea

Gazte Klubeko eta Amaraun Klubeko arduradunek bi ekintza hauetan parte hartu nahi duten gazte eta haurrei izena emateko eskaera egiten diete.

Inskripzioa egiteko hiru modu daude, Ttakuneko bulegora hurbildu, 943 37 14 47 zenbakira deitu edo aisia@ttakun.eus helbidera mezua bidali. Ekintzak doakoak dira.

GAZTELEKUA

Neguko ikastaroak gazteentzat

Lasarte-Oriako Gaztelekuak neguko ikastaro eskaintza eman du jakitera. Komiki eta ilustrazioa, break dance, dance hall eta gitara izango dira otsailtik martxora eskainiko diren ikastaroak. Astean 2 ordukoak dira eta 12 eta 30 urteko herritarrei zuzendutakoak dira.

Ikastaroaren arabera prezioa 5 eta 10 euro arteko da gazte erroldatuentzat eta 33,25 eta 66,50 euro artekoa erroldatu ez daudenentzat.

Izena ematea ostegunean irekitzen da eta urtarrilaren 28an amaituko da. Informazio gehiago jaso edo inskripzioa egin nahi duenak Gaztelekuko bulegora jo behar du.

ZABALETA AUZOLAN

Neguko festa larunbatean

Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek urtero legez, Neguko festa antolatu dute, gaztetxo eta helduen gozamenarako.

Etxe txikiak goizean izango dute haien ekintza nagusia. 10:00etan, Txuri-Urdin izotz jauregira txangoa egingo dute.

Ostean, 14:00ak aldera, haur eta helduak Xirimiri elkar-teen egingo den babarrun janean batuko dira.

Bazkarira joan nahi dutenek, osteguna 21 baino lehenago, auzoko dendan jarrita egongo den zerrendan izena ematea eskatzen dute Zabaleta Auzolaneko kideek. Txuri Urdinera joateko ez dago apuntatu beharrik.

BIYAK BAT

Batzar Nagusia eta zunba saioak

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die, urtarrilaren 30ean, urteko Batzar Nagusia egingo duela.

Batzarra egoitzan bertan izango da. Lehengo deialdia 17:30ean da eta bigarrena, berriz, 18:00etan.

Era berean, elkarteko zuzendaritzak ekintza berri bat txertatzeko asmoa duela eman du jakitera, zunba saioak.

Ekintza honetan parte hartzeko interesa duten bazkideek astelehenean ostiralera 10:30etik 12:30era hurbildu behar dira egoitzeko bulegora.

LANAK

Zumaburu ikastetxeko estalki eta fatxadak konpontzeko esleipen prozedura

Zumaburu ikastetxearen estalkia eta fatxadak zaharbertzeko eta erantsitako patioa estaltzeko obren esleipen prozedura martxan dago. Interesa duenak Lasarte-Oriako Udaleko *administrazioa.lasarte-oria.eus* web orrialdean prozedurari buruzko informazio gehiago aurki dezake.

Aterpeko Gabonetako sorten saridunak

Aterpea Merkataritza elkarteak Gabonetako kanpaina izan zuen martxan abenduan zehar.

Elkarteko hainbat dendatan erosketak egiten zituzten herritarrek Gabonetako saski baten zozketan sartzeko aukera zuten.

Zozketa eginda, elkarteak denda bakoitzeko saridunak jakitera eman ditu.

- Alcar Leioak: Jacobi De Llanos.
- Electricidad Arregui: Jose Antonio Ansa.
- Abreu Bazarra: Leire Fraile.
- Bideo Lagunak: Leonor Garcia.
- Ormazabal Loradenda: Cristina Palacios.
- Arkupe taberna: Juan Jose Moreno Valle.



Aterpeko Gabonetako sorten sarituek kalitatezko produktuez gozatu ahal izan dute.

- Donna Boutique: Elena Sanchez.
- Confecciones Nogues: Ignacio Molina.
- Urruzola Mertzaria: Carmen Lopez.
- Sukoa burdindegia:

- Begoña Izagirre.
- Ventanas ISU: Jose Antonio Valdivia.
- Kattagorri Jolasdenda: Edurne Biain.
- Merceria Olmi: Justo Fernandez.

- Santana Informatika: Ana Iraola
- Alba Moda: Ane Zubeldia Redondo.
- Zapateria Iturbe: Juan Blanco Alonso.
- Ziberlokutorioa Ama-

- lur: Brenda Lissheht.
- Izarra bitxitegia: Agurtzane Garcia Iñorbe.
- Zumaburu liburudenda: José Checo.
- Lizarri Optika: Javier Casado.
- Lentzeria Maya: Haizea Martinez.
- Yolanda taberna: Hector Alonso.
- Buenetxea kafetegia: Inma Naranjo.
- Andatza taberna: Imanol Gtoño
- Alda osagarriak: Isabel Peña.
- Josema Jesus sarrailadenda: Balerdi Iribarren.

Irabazle guztiak jaso dute dagoeneko sorta eta kalitatezko produktuez gozatu ahalgo dute.

Lehen Mundu Gerrako bizipenak Irakurle Txokoan

Danele Sarriugarte izango da Irakurle Txokoko gidari berria

Mikel Peruarena idazlearen 'Su zelaia' lana aztertuko du hurrengo saioan Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak. 2015 urteko Euskadi Literatur saria izan zen liburua, baina idazleak uko egin zion sariari. Lehen Mundu Gerrak Iparaldean izan zuen eragina aztertzen du Peruarenak. Irakurle Txoko lagunek idazle eta gidari berriarekin liburua lantzeko aukera izango dute.

TXINTXARRI

Irakurle Txokoak urtarrilaren 26an 2016ko lehen saioa izango du. Saio honek berrikuntza bat dakar, gidari aldaketa.

Txokoko lagunek jakitera eman dutenez, Uxue Alberdiren amatasun-baja dela eta, hilabete batzuetan Danele Sarriugarte izango da lan honetan. Berarekin izan gara Txokoan bere esperientzia ezagutzeko..

Literatura masterra

Danele Sarriugarte Itzulpengintza eta interpretazioan lizentziatua da. Graduondoko-ikasketak egin ditu pentsamendu kritikoari buruz, eta literaturaren teoria eta literatura konparatuan masterra du. Hainbat komunikabideetan kolaboratzaile lanetan dabil.

2014ean argitaratu zuen bere lehen eleberria 'Erraiak' 2012ko Igartza literatur-sorkuntzarako beka irabazi ostean.

Txokoetako gidari

Hori dela eta, azken urtean idazle modura joan izan ohi da Irakurle Txokoetara, 2014ko martxoan izan zen Lasarte-Oriako. Baina gidari

lanak ere egin dit Sopela edo Elgoibarren.

"Aurreko ikasturtean hasi nintzen Sopolako eta Elgoibarko irakurle-taldeak gidatzen, eta aurtengoan dena bost gidatzen ditut, Lasartekoa kontuan hartuta," azaldu digu.

Idazle eta gidari izateak aberasgarri dela deritzo, "niretzat behintzat bai. Batean sortzaile gisa jardun behar duzu, fokua zuzan jarriago dago zuk idatzi duzula dena delako obra. Orain gehiago arituko naiz irakurle paperean, harritu edo gustatu zaizkidan gauzak komentatzen... Gogoko dut".

Metodologia bera

Aipatu legez, Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko gidari lanetan hasi da eta azpimarratu duenez, ez da aldaketarik egongo.

"Metodologia bera erabiliko dut," adierazi du.

Honela, hilabetero liburua irakurtzen lagungarri egiten den informazioa eskainiko die kideei.

"Beste taldeetan ere horrela aritzen naiz, gainera. Gero, noski, pertsona bakoitza den modukoa da eta zenbait gauza alda daitezke, baina



Danele Sarriugarte, eskuineko lehena, izango da Irakurle Txoko gidari. Irudian, 'Erraiak' liburuari buruz mintzatzen.

egituran behintzat ez," aipatu du.

Liburu aukeraketa eta idazleen bisitei dagokionez, "zentzu horretan ere ez da aldaketarik egongo. Aurrez finkatutako egutegi bat bete behar dut nik".

Eta horren harira, hurrengo saioetako liburua aipatu dizkigu: urtarrilaren 26an Mikel Peruarenaren 'Su zelaia' eleberria, Peruarena bertan dela, eta otsailaren 16an Katixa Agirreren 'Atertu arte itxaron'.

Su Zelaia

Danelek sipatu legez, Mikel Peruarena Ansa kazetariaren 'Su zelaia' liburu landuko dute hilabete honetako saioan.

Liburu honetan Lehen Mundu Gerrako gertakizun batean du oinarria, Frantziako Armadak 1914ko udan gerra-ara deitu zituen euskal gaz-

teak. Sei mila bat euskaldun hil ziren lubaki eta borroketan.

Peruarenaren liburua Baionako Infanteriako 49. Erregimentuak bizitakoa azaltzen du, baita garai hartako euskaldunak nola bizi ziren eta zer pentsatzen zuten ere.

Errealitatea eta fikzioa nahastuz gudaren ankerkeria eta bere eraginak jakitera ematen ditu liburua.

Honetaz gain, beste ezaguri adierazgarria du liburua. Istorioa garatu ahala kontakizunaren hizkuntza euskara batetik iparraldeko euskarara aldatzen da.

Euskadi Saria

Hau guztiagatik, hainbat sari jaso ditu, baina zer esan gehien sortu zuena 2015 Euskadi Literatura Saria izan zen. Izan ere, idazleak saria ez jasotzea erabaki baitzuen.

Idazleak azaldu zuen

moduan, 'Su Zelaia' liburu Euskadi Literatura Sarietarako hautagai zela jakitera eman ziotenean Peruarena Ansa sarietan hautagai izateak sortzen zion ezinegona eta saritua izanez gero hau jasoko ez zuela azaltzen gutuna bidali zion epaimahaiari.

Hala eta guztiz ere, 2014 urtean argitaratutako euskarazko literatura liburuen artean onena eta aipagarriena zela erabaki zuen Sarietako epaimahaiak.

Peruarena saioan

Hau guztiaz eta beste hainbat gai aztertuko dituzte Irakurle Txokoko lagunek urtarrilaren 26ko saioan.

Gainera, liburuari buruzko zalantzak Peruarena berak argitu ahalko dizkie kideei saioan izango baita, Danelek aurreratu bezala.

Hitzordua, Manuel Lekuona kultur etxean da, 18:30ean.

Ane Labaka Bertso Eguneko goizeko saioan izango da

Urtarrilaren 30ean, Bertsozale Elkarteak Bertso Eguna antolatu du Donostian. Honen baitan hiru ekintza ezberdinen izango dira, saio musikatu, ekitaldi nagusia Kursaalako Areto Nagusian eta afaria. Hainbat bertsolari parte hartuko dute bertsolarien erabakiak ardatz izango dituen egun honetan eta horien artean Ane Labaka lasarteoriatarra izango da.

Zehazki, berrikuntza modura, eguerdian Kursaal pareko Picachilla garagardotegian egingo den saio musikatu kantatuko du Anek.

Ez da lehen aldian herritarrek egun honetan bere harritxoak jartzen duena, esate baterako, 2014 urtean kaleko saioan izan zen. Orduan generoa izan zen gaia.



Bertso Egunean, Ane Labakak goizeko saio musikatuaren parte hartuko du.

Musika eta bertsoak

Bertsozale elkarteak azken urtetan kalez kaleko saioa alde batera utzi eta apustu berria egin du aurten, saio musikatu.

Ane Labakarekin batera beste bost bertsolari izango dira oholztan. Bat-batekoan, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza eta Ane bera arituko dira. Rosi

Lazkanok eta Nerea Elustondok, berriz, bertso jarriak abestuko dituzte.

Idurre Eskisabel eta Eñaut Asurabarrena, gitarraz musikatuak testuen bidez giro aldaketak eragingo dituzte.

Saio hau doakoa da.

Saio nagusia

Ohi bezala, Kursaalak hartuko du Bertso Eguneko ekitaldi nagusia, 18:00etatik aurrera.

Aurtengo gaia, bertsolariak antolatzailearen deia jasotzen duenetik oholztan gaia entzunda kantuan hasi bitartean hartu beharreko erabakiak dira.

Hori ardatz izanik, Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xabier

Terreros, Jon Maia, Oihana Bartra, Julio Soto eta Agin Laburu izango dira bertsolariak. Odei Barroso bertsolariaren '2zio' taldea ere zuzenean ariko da.

Afaria eta festa

Egunari amaiera emateko, afaria eta festa izango dira Kursaal bertan. Hauetan ere ezin bertsoak falta. Unai Agirre, Jexux Mari Irazu, Iker Zubeldia, Amets Arzallus, Alaia Martin, Onintza Enbeita, Xabi Igoa, Unai Mendizabal, Eli Pagola, Eneritz Artetxe eta Maddalen Arzallus izango dira kantuan.

Ekitaldi nagusirako eta afarirako sarrerak www.bertsosarrerak.eus orrialdean eskuragarri daude.

Zinea eta opera asteburuan

'Rams' eta 'Truman' filmak eta 'Cyrano de Bergerac' opera eskainiko dira

Okendo Zinema taldearen eta Lasarte-Oriako Kultura sailaren eskutik, izeneko zine lehiaketetan saritutako filmak eta opera ikusteko aukera izango dute asteburu honetan Manuel Lekuona kultur etxeako aretora hurbiltzen diren herritarrek.

TXINTXARRI

Kultura eskaintza interesgarria dago asteburu honetan Manuel Lekuona kultur etxean.

Batetik Okendo Zinema taldearen eskurik 'Rams (el valle de los carneros)' film islandiarra izango da ostiralean.

Film honek hainbat sari eskuratu zituen, hala nola Canneseko jaialdian film onenaren saria edo Urrezko galburua Valladolideko Semincin.

Film dramatiko honek bi anaien arteko harremana azaltzen du. 40 urtetan ez diote hitzik esan elkarri, baina haien ondasun preziatuena, ahari-taldea, salbu mantentzeko bat egin beharko dute.

Filmaren ostean, ohi bezala solasaldirako tartea izango da.

Hitzordua, aipatu legez, ostiralean izango da, 22:00etan Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrera, 5,50 euro da.

Domingoren 75. urteurrena

Larunbatean, berriz, Manuel Lekuona 'Cyrano de Bergerac' operaz gozatu ahalko da.

Kultura sailak antolatutako proiektio digitalen saio berri honek Placido Domingo abeslariari omenaldi txiki bat egin nahi dio. Izan ere, 75 urte beteko baititu tenoreak urtarilaren 21ean.

Literaturako lan klasikoa operara eraman zuen XIX. mendean Franco Alfano konpositore italiarrak. Henri Cainen libretoan oinarritutako opera honek Cyrano de Bergerac, Roxana eta Cristianen

abenturak lau ekitaldietan azaltzen ditu.

Michal Znaniecki eta Patrick Fournillierrek zuzentzen duten bertsioan, Placido Domingo dugu Cyrano eta honekin batera, Roxanaren paperean Sondra Radnovsky soprano amerikarra izango dugu. Arturo Chacon tenore mexikarra da Christian.

Inpresionismo frantsesaren eta Straussen eragina entzun daiteke musikan eta Debussyren kutsua ere antzeman daiteke momentu batzuetan.

Opera zaletuek Valentziako Palau de les Arts Reina Sofian 2007 urteko otsailean grabatutako saioa ikusteko aukera izango dute. Hitzordua larunbatean 19:30etik aurrera izango da. Sarrerak 9 euro balio ditu.

Zilarrezko aktoreak

Azkenik igandean, 'Truman' film espainiarra izango da, 19:30ean.

Cesc Gayk zuzentzen duen film honi esker, Ricardo Darin eta Javier Camarak antzezle onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuten Donostiako Zinemaldian.

Julian eta Tomas haurtzarako lagunak dira. Julian eta bere txakurra Trumanek ezusteko bisita egiten diote Tomasi. Berarekin dauden egunetan bizipen ederrak izango dituzte.

Amodioa

Bestalde, hurrengo astean urtarilaren 30ean, 17:00etan, haur eta helduei zuzendutako 'Amour' antzerkia izango da. Sarrera, 3,80 euro. Marie de Jongh taldeak bere azken lana dakar.



'Cyrano de Bergerac' lan klasikoa opera ormatuan ikusteko aukera izango da larunbatean.

TTAKUNEKO BAZKIDE ZARA?

Kultur Elkarteko funtzionamendua hobetu asmoz, gure bazkideen errolda eguneratzen ari gara.

Bazkidea bazara, gurekin harremanetan jar zaitezke zeure datuak ongi ditugula ziurtatzeko.

Nola?

- 1.- ttakun@ttakun.eus helbidean
- 2.- **943 37 14 48** zenbakira deituta
- 3.- **Bulegotik pasata.** Geltoki kalea 4. zenbakian gaude



Islandiako lana lurretan murgilduko dira ostiralean zine forumerara hurbiltzen direnak.

ERRUGBIA.-

Lavie ZRT-Beltzak ezin izan zuen Basurdeen aurka

Ohorezko B mailako taldeak Valladoliden garaipena erdietsi zuen, 5-26

Partida interesgarriak izan dituzte asteburuan Beltzak taldeeko kideek. Euskal Ligako 2. mailako kideek sailkapeneko bigarren sailkatua, Gernika izan zuten aurrez aurre. Adorez jokatu arren, jokalari falta sumatu zuen taldeak. Basurdeek eskuratu zuten garaipena. Ohorezko B mailako taldeak berriz, VRAC Quesos Entrepinares B garaitu eta sailkapeneko lehen postuetan mantentzen da.

TXINTXARRI

Seniorren Euskal Ligako 2. mailako partida ikus-terko aukera izan zuten errugbi zaleek larunbata goizean Michelingo kirol gunean.

Aurrez aurre, Lavie ZRT-Beltzak eta Gernika taldeak izan ziren eta etxeko taldeak ez zuen lan erraza izan sailkapeneko bigarrenaren aurka. Lan ederra egin arren, aulkian kiderik ez izateak kalte egin zion Beltzak taldeari eta 10-27 galdu zuen.

Lehen hogeitun minutuetan baloiaren jabetza berdindua izan zen. Baina Lavie ZRT-Beltzak taldeko kide bat min hartu eta badaezpada, jokazeari utzi zionean Gernikako Basurdeek haien jokoa ezarri zuten.

Gernikak zailtasunak zituen defentsa gaitzeko. Hala ere, aurre hartu eta tarte ireki zuten markagailuan. Atsedenaldira, 0-17 joan ziren.

Bigarren zatian, Lavie ZRT taldeko gazteek indarrez ekin zioten eta bi entsegu lortu zituzten. Basurdeek aldiz bakarra egin zuten. 10-27 amaitu zen partida.

Lavie ZRT-Beltzak taldeak elastiko berria estreinatu zuen partida honetan, Xabi Prieto eta Beñat Arroyo herritarrek hasieratik jokatu zuten.

Ohorezko B maila

Bestalde, Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldeak Valladolidera egin zuen bidaiatazo.

Fran Puertasek zuzentzen duen taldeak 5-26 irabazi



Lavie ZRT-Beltzak taldeak Gernikako Basurdeen aurka jokatu zuen norgehiagoka. 10-27 galdu zuen.

zion VRAC Quesos Entrepinares B taldeari.

Lehenengo zatia borrokatua izan zen. Etxeko taldeak aurrea hartu zuen markagailuan. Baina Babyauto Zarautz taldeko mutilek euren kalitatea eta joko ona baliatuz markagailuari buelta eman eta garaipena Euskal Herrira ekarri zuten.

Partida honetan, hiru lasarteoriarrek parte hartu zuten. Xabier eta Ander Rekondo anaiek hasieratik

jokatu zuten, eta bigarren zatian David Vega atera zen.

Denboraldi paregabea burutzen ari da Fran Puertas ordiziarrak zuzendutako taldea.

Aurreko urtean kategoriaz igotzeko kanporaketak jokatu zituzten eta balentria lortu ez zuten arren, badirudi aurtegoan berritoki saiatzeko aukera edukiko dutela, Aparejadores de Burgos taldeak bakarrik jarraitzen baitio Babyauto Zarautz taldearen eritmoari.

14 urte azpikoen garaipena

Honetaz gain, Lavie ZRT-Beltzen taldeak Ordizia A taldea 29 -27 garaitu zuen Astin.

Beltzakeko gazteek hasieratik ezarri zuten haien jokoa eta 12-0 aurreratu ziren. Tarte horrek, goierritarrek kontrolpean izateko balio izan zien. Nahiz eta ordiziarrak markagailuan hurbildu, Lavie ZRT-Beltzak taldeko gazte txoek errenta mantendu eta partida irabazi zuten.

ARETO-FUTBOLA.-

Ostadar Antonio Aroztegiaren garaipena

Areto-Futboleko 3. mailako Ostadar Antonio Aroztegia taldeak San Jorge Santurtzi 5-2 garaitu zuen larunbatean udal-kiroldegian.

Partida gogorra izan zen. Lehen zatian bi taldeek aukerak sortu zituzten. Baina herriko taldea izan zen bitan baloia arerioaren atean sartu zuena. Defentsa lan ederra egin zuen Ostadarrek azken minutuetan.

Bigarren zatia, berdindua izan zen. Bi taldeak erasora atera ziren eta atera iritsi ziren behin baino gehiagotan. Ostadarrek errenta mantentzen jakin zuen eta hiru puntuak etxean geratu ziren.

Maila mantentzeko lehiak

Sailkapenaren beheko postuetan dago Ostadar Antonio Aroztegia. Orain arte erakutsi duten maila eta poltsikoratzea lortu dituzten puntuen arteko



Ostadar Antonio Aroztegia taldeko jokalariek lan ederra egin zuten.

harremana ez da proportzionala izan. Baina kategoria hauetan oso garesti ordaintzen dira defentsan egindako akatsak. Halaber, arerioen ate ingurura gerturatzean ez dira guztiz fin ibili.

Jardunaldi bakarra gertatzen da lehen itzulia amaitzeko. Partida zaila jokatuko dute hurrengo asteburuan

Berrizen, Presion Break taldearen aurka.

Sailkapeneko goiko postuetan dago talde bizkaitarra, eta gauzak ez dizkie batere erraz jarriko Josean Jimenezek entrenatzen dituen jokalariei.

Lehenengo itzulia garaipekin batekin amaitzea ederra litzateke taldearentzat.

FUTBOLA.-

Emakumezkoen taldeak garaipena lortu zuen

Ostadar SKTko emakumezkoen Lurralde mailako taldeak aukera bikaina zuen atzo igoera faseko lehen garaipena eskuratzeko, eta ez zuen alferrik galdu, 4-0 hartu zuen mendean Intxaurdi. Julen Ormazabal eta Iker Artetxeren jokalariek nagusi izan ziren lehen minututik azkenera arte. Eliren gol batekin hartu zuten aurrea, eta 1-0ekoarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian beste hiru gol sartu zituen taldeak, eta hamaika aukera eduki zituen besteren bat gehiago zakuratzeko. Azkenean, Elik, Ainarak, Crisek eta Wilcarrek sartutako golei esker, 4-0 irabazi zuen Ostadarrek.

4 partidu jokatu ditu orain arte Ostadarrek igoera fasean, eta beste hainbeste puntu bildu. Igoera fasea jokatzea denboraldi-aurretik egindako lan bikainaren ondorio eta saria da. Julen Ormazabalek eta Iker Artetxek zuzentzen duten taldea mugak gaitzen joan da jardunaldiz jardunaldi, Euskal Ligara igotzeagatik borrokatzeraino. Arizmendiren aurka neurtuko dituzte indarrak asteburu honetan.



Emakumezkoen taldea nagusi izan zen partida osoan zehar.

Agenda

Ostirala, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Islandiako landa munduari begira

Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Rams (el valle de los carneros)' filma islandiarra izango da zine forumean. Bi anaien arteko liskarrak 40 urte iraun ditu. Urte hauetan guztietan ez diote hitzik esan elkarri, baina elkar lan egin beharko dute haien ondasun prezia-tuena mantentzeko, ahari-talde bat. Sarrera, 5,50 euro

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 30, 18:30ean

Tartean teatro konpaniak 'Amour' lana eskainiko du. Haurrentzako eta helduentzako egokia den obra. Sarrera, 3,80 euro



Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilean zehar

Jose Luis Oria margolariaren lanak, lore, paisai edo bodegoiak ikusgai.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'El viaje de Arlo' animaziozko filma ikusteko aukera. Sarrera, 3,80 euro



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Truman' Ces Gayk zuzendutako filma ikusteko aukera. Sarrera, 5,50 euro

Musika

FURIA BELTZA TABERNA

Ostirala, 23:00etan

Ñaco Goñi eta Fernando Beizteguiren kontzertuaz gozatu ahalko da.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 29, 19:30ean

'Duo L'Incontro' taldearen kontzertua Danok Kidek antolatzen dituen Musika Topaketan barruan. Francesca Romana di Nicola harpista eta Itziar Lujanbio oboe-joleak osatzen dute bikotea.

Opera

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 19:30ean

Plácido Domingo abeslariak 75 urte

beteko dituela ospatzeko 'Cyrano de Bergerac' opera proiektatuko dute Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan. Sarrera, 9 euro



Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 26, 18:30ean

Irakurle txokoko lagunak Euskadi saria izandako 'Su Zelaiak' liburuari buruz mintzatuko dira Mikel Peruarena egilearekin. Txokoko gidari gisa, Danele Sarriguarte egongo da.

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Urtarrilak 21era arte, 18:00etatik aurrera

Jose Mari Igerategiren egur eskulturen erakusketa.

Andoain

Pailazoak

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala, 18:00etan eta larunbata, 16:30ean eta 19:00etan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek baserriko biztan oinarritutako 'Amalur' ikuskizun berria eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.

Herritarren txokoa

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasota ibilbideko paseoa, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke.

Interesa duenak jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Ipar martxa irteera


Urtarrilaren 23an egingo dute aurten-go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.

Eskertza

Urtarrilaren 23an egingo dute aurten-go lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalaren ikuspegitik aztertuko dute.

Hemeroteka

Duela 1197 ale



TXINTXARRI aldizkariak urte hauetan guztietan Lasarte-Orian izan diren taldeen berri eman du. 1998 urteko lehen zenbakian, Lasarte-Oriako irratizaleuen elkarteak izan zen berri. izan ere, bere 10. urteurren ospatzen baitzuen.

Elkarteak 25 kide zeuden orduan eta irratitari esker ezagutzen zioten elkarri. Haien helburua, jendeari laguntzeko irratia-mota egitea.

Irrati zaleuen hizkuntza, solasaldien errespetua, diru-laguntza eza... gai ezberdinez hitz egiten zen artikuluan.

Gainera, herriko eta herritik kanpoko ekintzetan parte hartzen zutela ere jakitera ematen zuten. Hala nola, Lasarte-Oriako klasikan edo ekaineko uholdeetan eskainitako laguntzaren berri ematen zuten.

Era berean, irratia zale taldearen logoa eta kide batzuen izen eta irudiak ere argitaratu ziren.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Landaberri
I K A S T O L A
L A S A R T E - O R I A

Zure herrian bertan, euskaraz

MATRIKULAZIOA: urtarrilaren 25etik otsailaren 5era



ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

- 2 urtetik aurrera
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza: Ingelesa 4 urtetik aurrera
- Teknologia berrien erabilera. Baliagide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
 - Gela egokituak
 - Laguntzako irakasleak
 - Aholkulariak
 - Orientatzaileak
- Kirola, antzerkia, dantza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08.00etatik 09.00etara harrera zerbitzua
- Jangela zerbitzua

BILERA

HH eta LH: urtarrilaren 22an 15.15etan Garaikoetxea eraikineko soinketa gelan

MATRIKULATZEKO TOKIAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikula

Ordutegia: 09.00etatik 13.00etara

Garaikoetxea eraikinean - Tel: 943 37 06 62
landazuzendaritza@gmail.com